


2 Margotu eta asmatu

Jakin nahi al duzu zein den Ainhoaren zaletasuna? Marraztu lauki bakoitza zehaztutako kolorean, eta baietz asmatu!

- 1- Horia
- 2- Arrosa
- 3- Urdina
- 4- Marroia
- 5- Berdea




Txapela

Plater sakonek ez dute balio zopa jateko bakarrik; gezurra badirudi ere, txapelak egiteko erabil daitezke.

Beharrezko materiala

- Plater sakon bat.
- Lila koloreko paperak.
- Kartoi mehe horia.
- Egunkari papera.
- Kola hidrosolublea.
- Kola zuria.
- Pintura zuria eta berdea.
- Pintzelak.
- Paperezko zinta eranskorra.
- Guraizeak.


Nola egin



1 Lila koloreko hainbat paper zati moztu. Paperaren luzerak plateraren diametroak baino handiagoa izan behar du.



2 Plater sakona hartu, eta moztutako paper zatiekin estaliko dugu. Txapelaren lehen geruza kolarik gabeko paper zatiekin egingo dugu. Txapelari beste bi edo hiru paper geruza gehituko dizkiogu, baina, kasu honetan, kolatutako paper zatiak jarriko ditugu.



3 Jarritako paper geruza guztiak lehortutakoan, platera kendu, eta txapelaren inguruak biribildu. Txapelari ebaki txikiak egin ertzetan.

-pasa

3 Itzalak

Nafarroako Bertsolari Txapelketa ospatu berri da. Hizkien festa honetan ere lau bertsolari gazteren abizenak daude ezkutatuak. Ordenatu hizkiak, eta asmatu zein bertsolari diren!

AZLLRAUS




OCILNA



LUNAJOIIB









EBNEIAT




4 Puzzlea


Gustuko al duzu puzzleak egitea? Ea asmatzen duzun puzzle hau amaitzeko zein pieza falta den!



4 Txapela apaintzeko, lore bat egingo dugu. Lorearen zurtoina egiteko, txapelaren koparen diametroaren tamainako egunkari paper zatia hartu, eta luzetara biribildu (ikus irudian). Biribildutako egunkari zatia sendotzeko, zinta eranskorrekin estali. Ondoren, berdez margotu.



5 Kartoi mehean lorearen petaloak marraztuko ditugu. Petaloak moztu ostean, zurtoinaren zati batean itsatsiko ditugu.



6 Egunkari paperarekin bolatxo bat egin, eta zuriz margotu ostean, petaloen erdian ezarri. Amaitu dugu gure lorea!